

#### **4. IRABAZI- ITURRIAK**

· Zenbat eta nola ordaintzeko prest egongo da gure bezero potentziala eskaintzen diogun produktu eta zerbitzuaren truke?

Bi diru sarrera mota daude:

- Ordainketa bakarraren bidezko sarrerak (bezeroak aldi batean ordainketa egin)
- Ordainketa errepikarien bidezko sarrerak (bezeroak modu jarraian egiten dituen ordainketatik eratorritakoak)

Ordainketa bakar baten edo errepikarien bidez izan ala ez, enpresa batek hainbat modutara lor ditzake irabazi iturriak. ADIBIDEZ: Aktiboen salmenta, mailegua, alokairua...

Gure ereduak:

#### **Irabazi iturriak:**

Produktua merkaturatu aurretik, hasierako gastuak gure patrikatik jarriko ditugu, piercing eta belarritakoen eskaerak gure diruarekin ordainduko ditugu, baita chip-ak ere.

Gure diru iturria nagusia salmenten bidez lortutakoa izango da. Ordainketa txartelarekin izango da, errazena da eta. Hainbat aukera emango ditugu hala ere, kontrareembolso edo PayPal sistema erabiliz ere onartuko dugu. Kontrareembolso sistema, produktua iristen zaizunean ordaintzea esan nahi du, hau da, produktua ikusterakoan eta ondo dagoela baieztatzerakoan ordaintzea. PayPal sistema erabiltzeko, kontu bat beharrezkoa da sistema honekin ordaindu ahal izateko.

